


URRUÑA Intzola



Distantzia 6,7km | **Desnibela** 280 m | **Iraupena** 2h15 | **Tipologia** Itzulia | **Zedarriak** PR ibilbide osoan

Urruñatik (A63 autobideko 2. jalgibidea), hiri inguruko biribilgunean, Ibardin lepora eta Azkainerako norabidean segitu (D4). 3,5 km urrunago, Ibardin leporako bidea eskuin utzi eta Azkaine aldera segitu. Oiheta auzoaren sarreran, eskuin hartu kapera baten aitzinean, handik 100 m-tara aparkaleku bat aurkitzeko, karrika bazterrean (Intzola bidea).

GPS datuak: **UTM : 608003 - 4798806 Lat/Long : 43.33433/1.66771**

Intzola ibarxkako ibilketa familia-ibilaldi bikaina da, udako arratsaldeetan ere egin daitekeena, bidea maiz itzalean delako eta erreka freskotasunaz goza daitekeelako. Galtzada zaharra, kontrabandisten bide gordea, baita Espainiako gerla zibilaren denboran iheslarien pasabidea ere, edota bigarren mundu gerlan, alemanen zapalkuntza ihes egiten zuten gizon eta emazteen salbamen-bidea, Intzola bide hori, Historia sakonekoa, ibilaldi jostagarria izaten da gaur egun, non itzalguneak, ur-jauziak eta mariorrazak preziatzen ditugun. Aireleku goi-zelaitik eginen dugun itzultzeak baizik ez dizkigu igotzeko indarrak eskatuko, eguzkia aurkituz toki argietan. Baina, egunaren hondarreak hasirik, argitasun ederrak eskaintzen ditu Larrunera eta itsasbazter atlantikora, Hendaiatik Biarritzera.



1. ZATIA > Oihetatik Intzola ibarxkaren bihotzera


UTM: 608003 - 4798806. Oihetako kapera baino urrunago doan errepide ttipia segitu (50 m); azken etxearen heinean, bide zabal batek hartzen du segida. Kanadar pasabide baten ondotik, zuzen segitu bide zabal eta lauzatuan (eskuinean, bide bat utzi). Hesi baten heinean, bideak bide harritsu bati uzten dio lekua, igotzen hasten dena. Intzola erreka bazerretik ibili. T itxurako bidegurutzearen heinean, eskuineko bidexka hautatu, ibarxka erdiko bidegurutzera iristeko.

2. ZATIA > Goi-ibarra eta Intzola benta

UTM: 607576 - 4797085. Bi haritz lodien azpian, bidegurutzean (120 m), ezkerrean erreka bat ibitik iragan eta bidexka segitu, handik goiti GR10 seinalatua dena, beti erreka zure ezkerrean duzula. Mugarriak iraganez, bide seinalatua eskuinaldean utzi Espainian sartzeko (harkaitz hezeak). Lehen benta oso hurbil da, eta bigarrena 200 m gorago.

3. ZATIA > Intzola bentatik Erleen lepora

UTM: 608008 - 4796484. Intzola bentatik (150 m), gibelera itzuli bi haritz lodien bidegurutzeraino (1. urratsa). Ibia eta gero, aldi honetan, ezkerrean joan, ondoko ibarxkaren eskuineko mazelan igotzen den bidexka segitzeko (gorriz eta zuriz seinalatua). Estai zenbaitetan igotzen da oihanaren goi-aldera, bukaeran, ibarxkaren ezkerretik iraganez. Gailurrean, T itxurako bidegurutzeraino iritsi bide batetik: bertan GR10 utzi, 60 m urrunago, Erleen lepora iristeko, eskuinerantz.



4. ZATIA > Aireleku goi-zelaiko zeharkatzea

UTM: 606690 - 4797295. Erleen lepoan (244 m), Ibardingo lepoko errepideari kasurik ez egin eta eskuineko bidea hartu, xeila batez zirkulazioari hetsia. Oihanetik ateratzen da, Larrun gailurra aurkitzen du, eta goratasun argi batera iristen da. 30 m jaitsi lepo belartsurantz (266 m), eta iratze artetik, eskuin igotzen den bide zabal segitu. Gailurrean, Aireleku goi-zelaia zeharkatu, aurri baten ondotik iragan, eta ezkerrean doan tontor-lerroan jaitsi, zure parean.

5. ZATIA > Oihetara itzultzea jaitsiz

UTM: 607501 - 4797724. Y itxurako bidegurutzean (252 m), eskuineko hautatu, beti mendi gainetik hurbilena. Jaitsiera zorrotzagoa da, ozeanoaren parean, landaretza oparoan. Ezker, bizikletei zuzendutako bide bati kasurik ez egin, eta zuzen segitu. Behereko aldean, borda baten teitlatura hurbildu, ezker. Bordatik hurbil, bide on batera heldu, eskuinaldera segitzeko. Horrela, kanadar pasabidea berriz topatu, eta, zure parean, joatean hartutako bidea, aparkalekura itzultzen dena.



INTERESGUNEAK

❖ **Pudinga mokor bat (1,4 km)**
Pudinga itxurako harkaitz formazioak (edo konglomeratuak) Euskal Herriko itsasbazterren emblematikoa da. Arroka detritikoak dira, erreketan biribilkatutako eta sakonera ttipiko zuloetan sedimentutako uharriz osatuak, buztin oinarriko zementu natural batekin. UTM: 607679 - 4797456

❖ **Galtzada (2 km)**
Ibilbidearen abiapuntutik, agian, bidean agertzen diren galtzadetaz ohartu zara. Ibilbideak galtzada zahar bat segitzen du, mugaz bestaldera, jendeen eta ateratako meen zirkulazioa errazteko bide erromatarra. 1936tik goiti, espainol iheslariak ere erabili zuten bide hori. UTM: 607661 - 4796984

❖ **Ikuspegia (5,1 km)**
Aireleku goi-zelaiko laugune belartsuan, ikuspegi eder batez goza dezakegu azken jaitsiera hasi baino lehen. Alde batetik, Larrun mendigunera, bere antena-igorgailuarekin, eta bestalde, itsasbazterre: Donibane Lohizuneko badia, Biarritzeko Birjinarren Harkaitza, Angeluko hondartzak. UTM: 607228 - 4797622

❖ **Elorri zuria (5,25 km)**
Borda aurriaren ate aitzinean elorri zuri deitzen zaion zuhaixka bat bada. Hiru gingileko hostoei, bai gorriek eta arantza zorrotzei esker ezagut daiteke. Txoriek (txepetxek berdin) aldaxken tinkotasunean egiten dute ohantze. UTM: 607406 - 4797671

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK
Arrokatsua eta lerrakorra Intzola bentara hurbiltzean UTM : 607989 - 4796610

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK
2,6 km
Intzola benta, apairu eta edari, udan edo asteburuetan UTM: 608008 - 4796484

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetara ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziako formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarritueta.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereizi itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona				▲
Itzul ezker	└┘	└┘┘	└┘┘┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└└	┘└└└	▶
Norabide okerra	X	X	X	✖

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Méteo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKHEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAINA, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.